Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

2654

EBAZPENA, 2010eko martxoaren 29koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Bilboko (Bizkaia) Alameda de Urkijo kaleko 75. zenbakian dagoen Indautxu Garajea, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera eman, eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Bilboko Alameda de Urkijo kaleko 75. zenbakian dagoen Indautxu Garajeak daukan kultura-interesa azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Bilboko Alameda de Urkijo kaleko 75. zenbakian dagoen Indautxu Garajea, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskineko mugaketarekin eta II. eranskineko deskripzioarekin bat etorriz.

Bigarrena.– Bilboko Alameda de Urkijo kaleko 75. zenbakian dagoen Indautxu Garajea Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedientea jendeaurrean jartzea, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 20 eguneko epean alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan oinarrituz. Aipaturiko espedientea Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1. zenbakian dagoen Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunei, Bilboko Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2654

RESOLUCIÓN de 29 de marzo de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un periodo de información pública y audiencia a los interesados en el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Garaje Indautxu sito en la calle Alameda de Urkijo, n.º 75 de Bilbao (Bizkaia).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural que presenta el Garaje Indautxu sito en la calle Alameda de Urkijo, n.º 75 de Bilbao, atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Garaje Indautxu sito en la calle Alameda de Urkijo, n.º 75 de Bilbao, conforme a la delimitación que figura en el anexo I, y la descripción obrante en el anexo II.

Segundo.– Abrir un período de información pública del expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, Garaje Indautxu sito en la calle Alameda de Urkijo, n.º 75 de Bilbao, para que durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián, n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Bilbao, a los Departamentos de

Garraio eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari jakinaraztea, jakinarazpena egin eta 15 eguneko epean alegatu eta egokitzat jotzen dituzten agiriak eta frogagiriak aurkeztu ahal izateko.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak Ebazpen horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 29a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

MUGAKETA

a) Mugaketa-eremua.

Eraikinak berak zedarriztatzen duen mugaketa-eremua.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Mugaketa hori proposatu da beharrezkotzat jo delako Indautxu garajeko ingurumen-balioak, balio estetikoak eta ikusizkoak zaintzea, eraikin hori integraturik dagoen hiri-inguru argi definitu eta finkatuan.

Mugaketa beharrezkoa da hizpide dugun ondasuna behar bezala babestu eta balioesteko. Mugaketa, gainera, bat dator mugaketa-eremua zehazten duten kaleek, batetik, eta eremuaren berezko ezaugarriek, bestetik, ezartzen dituzten muga argiekin.

Cultura y Transportes y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, a fin de que en el plazo de quince días desde la notificación puedan alegar y presentar los documentos y justificaciones que consideren pertinentes.

Cuarto.– Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de marzo de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ANEXO I

DELIMITACIÓN

a) Ámbito de la delimitación.

El área de delimitación queda definida por el propio edificio en sí.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales, estéticos y visuales del Garaje Indautxu, en un entorno urbano claramente definido y consolidado en el cual está integrado.

La delimitación resulta necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien, es coincidente con los límites claros que establecen por un lado las calles que lo determinan y por otro la propiedad definida por su propia naturaleza.


AVENIDA
PLAZA VICTOR CHAVARRI
ARANA
MARIA ESCUZA
CALLE JOSE
ESKALA / ESCALA
25 12,5 0 25 Metros
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Plancha / Plano:
Delimitación
GARAJE INDAUTXU
Alameda Urquijo 75, Bilbao
Lurraldea / Territorio: BIZKAIA
Udalerria / Municipio: BILBAO
Data / Fecha: 28/12/2009
Eskala / Escala: 1:1.000

II. ERANSKINA

AZALPENA

Higiezinaren proiektua José María Aguirre arkitektoak egin zuen 1941. urtean eta hormigoi armatuz egin zen 1942 eta 1943 urteen artean. Eraikina mugimendu modernoaren arkitektura industrialaren barruan sartzen da. Higiezinaren oinplanoa laukizuzena da eta, eraikuntzazko profilari dagokionez, sotoa eta bost pisuko altuera du –sei alakan–.

Eraikina, hasieratik, soilik erabili da zenbait ibilgailu-mota gordetzeko garaje moduan. Berez, lehenengo solairuak tailerrak, biltegiak eta garajeak jartzeko ziren, eta goragokoak etxebizitzetarako. Nolanahi re, higiezinaren sustatzaile izandako oinetakoenpresak, lekualdaketa gauzatzea deserosoa zenez, ez zituen inoiz bere tailerrak bertan jarri.

Forma sendoak ditu eta arkitekturak, kokalekuak baldintzaturik dagoenez, hiriko errealitatearen formazko zertzeladak ditu, eragin nabarmena duelarik hura kokatzen den tokiaren konfigurazioaren gain. Horrela, eraikina zabalgunearen hiri-ingurunean txertaturik dago eta etxadiaren angeluan dago kokatuta; hortaz, izkinan egoteak nabarmendu egiten du eraikina puntu estrategikoan, konposizioa biribilduz.

Kanpoko aldetik, beheko solairuak, berez «industrialak» direnak, atzeraemanda daude. Goiko solairuak, aldiz, mailakatuta daude, agian, eguzkimendubaldintzak hobe aprobetxatzeko.

Etxaurreko horma alakan okertzen da. Gainerakoan, fatxada guztiz horizontala da, paretak egiteko bistako adreilu gorriak erabili baitira arkitekturako baliabide nagusi moduan. Alakatik abiatuta, bata bestearen ondoan jarritako gorputz irtenez osatutako etxaurreak luze doaz kaleetan barrena eta, Urkixo zumarkaleko etxaurrearen kasuan, altuera galtzen du kalean aurrera egin ahala.

Urkixo zumarkaleko etxaurrean, eraikinean sartzeko ateak –beheko solairuan dagoenak– kristalezko bi eremu handitan banatzen du altxaera. Hortik gorako bi solairuetan irtenune txiki eta mailakatua dago, eta leiho jarraituak daude etxaurre osoan barrena. Solairu horien gainean etxebizitzetarako beste bi solairu daude, balkoi jarraitua osatzen duten muturreko begiratokiez osatutako ohiko egitura daukatenak. Bosgarren pisua –azkena– atzeraemana da, eta, ondorioz, balkoi jarraitua osatzen du etxaurreko lerroan luze.

José María Escuza kalera ematen duen etxaurreak antzeko egitura du. Beste etxaurre horretako goiko solairuak ez du hartzen etxaurrearen lerro osoa, apurka-apurka mailakatzen da eta, alakarako bidean, terrazak sortzen ditu. Angelua okerra da, leiho jarraituak ditu eta gainerako etxaurreak baino solairu bat gehiagoko altuera duen dorretxoa, oso modu adierazgarrian errematataturik dagoena.

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

El inmueble, proyectado en 1941 por el arquitecto José María Sainz Aguirre y construido en hormigón armado en 1942-1943, se engloba dentro de la arquitectura industrial del movimiento moderno. Dispone de planta rectangular y su perfil edificatorio es de sótano y cinco pisos de altura, seis en el chaflán.

El edificio, desde el inicio, ha cumplido exclusivamente la función de garaje para diversos tipos de vehículos. Originalmente los primeros pisos se destinaron para talleres, almacenes o garajes y los más elevados a viviendas. Sin embargo, la empresa de calzados promotora del inmueble nunca llegó a instalar sus talleres por la incomodidad que suponía el traslado.

El repertorio formal es rotundo y su arquitectura, condicionada por su ubicación, dialoga con los trazos formales de la realidad urbana existente contribuyendo decisivamente a configurar el lugar en el que se sitúa. De este modo, el edificio se inserta en la trama urbana del ensanche ocupando el ángulo de la manzana en el que, «la esquina» realza su presencia, en su punto estratégico, rematando la composición.

Exteriormente, los pisos inferiores, más netamente «industriales», se retranquean y las plantas superiores se escalonan, quizás para un mejor aprovechamiento de las condiciones de soleamiento.

El paño de fachada se curva en el chaflán dando continuidad a la marcada horizontalidad de la composición que responde a la utilización del paño de ladrillo caravista rojo como principal recurso arquitectónico. Partiendo del chaflán, las fachadas compuestas de una sucesión de cuerpos volados avanzan hacia las calles y, en el caso de la fachada a la Alameda Urquijo, va disminuyendo en altura a medida que se avanza.

En la fachada a Alameda Urquijo, la puerta de acceso divide, en planta baja, el alzado en dos grandes superficies acristaladas. Las dos siguientes plantas adoptan un pequeño saliente progresivo que cuenta con ventanales corridos a lo largo de la fachada. Sobre ellas se articulan dos plantas de carácter residencial con la habitual estructura de miradores extremos configurando un balcón corrido. El quinto y último piso se retranquea, formando un balcón corrido en toda la línea de fachada.

La fachada a José María de Escuza, se articula de forma similar. Sin embargo, el cuerpo superior no ocupa toda la línea de fachada, escalonándose de forma progresiva a modo de terrazas hacia el chaflán. El ángulo, de remate curvo, acoge ventanas corridas a la vez que una torreta de un piso más de altura que el resto de las fachadas, con un remate muy expresivo.

Eraikinaren bolumenari dagokionez, eraikina zatitu egiten da funtzionaltasun-programaren beharrei egokitzeko. Nolanahi ere, mantentzen du konposizio-batasuna eta batasun estetikoa.

Materialak orekan dira formarekin. Horrek eragiten du eraikinak kanpoko itxura homogeneoa izatea, zeinean bistako adreilu gorria nagusi den. Balkoien karelak ere bistako adreiluzkoak dira eta gainean burdinazko tutu biribilez eginiko baranda dute. Badira harri itsurako hainbat eraikuntza elementu ere, hala nola horma-txapelak, leiho-isurkiak eta bao-inguruak. Horrez gain, alakako azken solairuan, bistako adreilua eta harrizko plakazko estaldurak uztartu dira.

En cuanto al volumen del edificio, se fragmenta para responder a las necesidades del programa funcional, manteniendo la unidad compositiva y estética.

Los materiales se equilibran con la forma contribuyendo a otorgar al edificio, un aspecto exterior homogéneo en el que domina la presencia del ladrillo caravista rojo. Los antepechos de los balcones se resuelven en ladrillo caravista y se coronan con barandilla de tubo metálico circular. Existen elementos constructivos puntuales de apariencia pétrea como albardillas, vierteaguas y cercos de vanos. Así mismo, en el último piso del chaflán se alterna el ladrillo visto con el aplacado de piedra.